

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure enpresan egingo dugun ondasuna ekoizteko hainbat enprekin izango dugu harremana. Sozietate hauekin egingo ditugun elkarteak elkarrekiko lehia gabekoak izango dira, guztiok konpetentzia gabeko etekinak lortuko ditugulako.

iRobot enpresarekin egingo dugu lan, gure bazkide eta hornitzaileak izango dira orgatxoaren softwarea garatzeko.

HP enpresarekin egingo dugu lan, gure hornitzaile eta bazkideak izango dira ordenagailuak lortzeko eta orgatxoaren inguruko aplikazio bat garatzeko.

International Bron-Metal S.Arekin egingo dugu lan, gure hornitzaileak izango dira orgatxoaren egiteko materiala lortzeko.

ABB enpresarekin egingo dugu lan, gure bazkideak izango dira robotak muntatzeko.

Garraiolari autonomoekin lan egingo dugu, gure bazkideak izango dira produktuak edozein lekutara eraman ahal izateko.

Media Markt enpresari gure orgatxoak ornituko dizkiogu, beraien lokaletan saldu dezaten.

Azkenik, Mondragón Unibertsitatearekin ere mantenduko ditugu harremanak, kanpusean I+D lana egiteko.